

ttipi-ttapa

1990eko Abenduak 6

51. zenbakia

dohain banatzen da



Hauteskunde
sindikalak
lantegiz-lantegi

FRANTXISKAREN SASKIA

LEHIAKETA

Hamabostaldi honetako sariak



Legia 42, Tfnoa: 63 03 77, BERA

"PHILIPS" helatu makina



DONAMARIAKO BENTAK

Jatetxea - DONAMARIA

Afari bat bi lagunentzat



Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 BERA

"Gore-Tex" mendiko botak

GOIKO Argazkiak

Altzate 36, Tfnoa: 63 05 15 BERA

Argazki makina bat

Portada moztu nahi ez baduzu, idatz ezazu erantzuna eta zure datuak paper batean eta abenduaren 22a baino lehen guri bueltatu. Animo! Zuk ere eskura dezakezu sari bat! Hirugarren hamabostaldiko sariak honelaxe banatu ziren:

Radio Bidasoak emandako **espres-eltzea**, Sarako **Jacqueline Aranbururi**; **Donamariako Bentak** emandako **afariak**, Iruñeko **Xabier Iberori**; **Mari Luz Sportek** emandako **jertsea**, Iturengo **Josefa Goñiri** eta **Goiko argazki dendak** emandako **argazki makina** Urrozko **Rosa Telletxea** ri. Kartak, La Villa Jatetxeko **Maria Concepcion Vicentek** atera zituen. **Zorionak!**

Galdera: Zein da Arizkungo antzerki taldeak antzestutako azkeneko lana?

Erantzuna:.....

Izen-deiturak:.....

Helbidea:..... **Adina:**..... **Tfnoa:**.....

Gusto baduzu, erantzun ezazu galdera eta guri bueltatu lehenbailehen: **ttipi-ttapa**, Frantxiskaren Saskia, Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA

non - zer

- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
- 9/21 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 22 ERREPORTAIA:** "Lan munduaren alde beltza" Noizbehinkako eta ezkutuko lana.
Pello Astiz
- 24 ELKARRIZKETA:** "Arizkungo Antzerki Taldea edo urtearen behin bederen"
Juainas
- 26 KIROLAK:**
Mattari.
- 28 OSASUNA:** Sendabelarrak: Plantain edo zain-belarra
Alberto Iturbe
- 29 ARO BERRIAREN ATARIAN:**
Fermin Alzuguren
- 30 MERKATU TTIKIA**
- 31 DENBORAPASA**
Enbido

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 3.500 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Mañone, Antton, Patxi Petrirena, Olain Elkarrea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
KONTSULTAK	
Arizkun	587039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla.....	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614444
Nafarroako ospitalea	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	262700
Gurutze Gorria.....	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka (larrialdiak).....	(943) 464622
Elizondo (larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Lesaka.....	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzarar	515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630104
ABERIAK:	
Iberduero	450335/450336

Deialdiak

▸ **Lesakan**, abenduaren 7an, Herriko Etxean arratsaldeko 5etan Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

▸ **Igantzin**, abenduaren 10an, arratsaldeko 7etan, Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

▸ **Beran**, abenduaren 11ean, arratsaldeko 7etan Herriko Etxean, Berako Euskara Batzordearen bilera.

▸ **Arantzan**, abenduaren 13an, arratsaldeko 7etan, Arantzako

Euskara Batzordearen bilera.

▸ **Etxalarren**, abenduaren 14ean, arratsaldeko 7etan, Etxalarko Euskara Batzordearen bilera.

Botikak

• **Abenduaren 6an**, Arantza, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

• **Abenduaren 8-9an**, Lesaka, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

• **Abenduaren 15-16an**, Etxalar, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo)

Dantzaldiak


▸ **Lesakan:**
• **Abenduaren 9an**, Plazan, 7.30etatik aurrera JOSELU ANAIAK taldearekin dantzaldia.

• **Abenduaren 16an:** Plazan, 7.30etatik aurrera IZADI taldearekin dantzaldia.

Kontzertuak

▸ **Lesakan:**
• **Abenduaren 8an**, ATXASPI ostatuan, arratseko 10etan JULIO CAGUETA.

Bota bertsoa



Esteban Arozena

Gaia: Hauteskunde sindikalak

Neurria: Hamarreko haundia

Aspaldidanik entzunda gaude hauteskundeak direla era honetan ez nintzateke gaur mintzatuko bestela partaide dira Comisiones UGT, LAB eta ELA begiratuta ez al du ematen letrazko zopa bat dela langileria nola zuzendu sigla tartean horrela.

Lau urtetikan irtetzen dira denak plazaren erdira hauen hitzetan ez da faltatzen laineria eta dizdira gero nagusiaren aurrean burumakur erretira hala ere zuk botatzekoan siglei ongi begira lagun benetan esaten dizut denak berdinak ez dira.

AGENDA

Lehiaketak

► **Beran, Gure Txokoa Elkarreak** antolaturik.

HAUR IPUINEN XIX.
BERA SARIKETA

eta

V. GURE TXOKOA
IPUIN LEHIAKETA

Azken hau, 16 urtetik gorakoentzat da.

Bai bata zein bertzera aurkeztu nahi diren lanak, urtarriaren 15erako Gure Txokoa Elkartera bidaliko beharko dira.

Parte hartu ahal izateko oinarrien berri izan nahi duenak, 630314 telefonoan xehetasun gehiago emanen diote.

► **ttipi-ttapak** antolaturik.

I. NARRAZIO
LABUR. KOMIKI
ETA ARGAZKI
LEHIAKETA

Informazioa, 631188 tfn.

Gastronomia

LEGATZA KOKOTXEKIN koxkera erara

Osagaiak: 4 legatz-xerra itxi (1/4 Kg. bakoitza), 300 gr. kokots, tipula, baratxuriak, perrexila, ardo xuri idorra, ilar batzuk, arraultz-egosi pare bat, dozena erdi esparragu, gatza, ura eta oliba olioia.

Kazula batetan tipula xehetua eta baratxuri ba-



Julitak emana. SANTAMARIA Jatetxea, DONEZTEBE

tzuk jarri. Pixkat egiten denean, legatz xerrak jarri eta

alde batetik eginak daudenean buelta eman eta kokotxak bota. Kazula maiz mugitu behar da ez itxekitzeko. Arraia "rehogatu" ondoren ardo-xuria bota eta gero ur pixka bat. Egitako giti falta denean, ilarak arraultzeak, esparragoak eta perrexila fin-fin xehetua bota egin arte. Azkeneko osagai hauek kazuelan modu apain batez jarri eta kitto.

Baserriko feria

► ZERRIKIA

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.000pzta. **Zerrigizena** (95-100): 132 pzta./kilo bizirik. **Urdamak:** 70-75 pzta./kilo bizirik.



Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

AGENDA

Irratia

Xorroxin Irratia

Baztan-Malerrekarako guneroko programazioa

8,00tik 12etara: Musika.
12etan: Egunon.
12,05: Etxeko lanak.
12,15: Konkurtso kulturala.
12,30: Egunkariak begi-
ratuz.
12,45: Nafarroan zehar
13,00: Herriz herri.
13,25: Oharrak, etab.
13,30: Gaur (Egunero
gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, de-
dikatoriak eta musika arra-
salde osoan zehar.

Abenduaren 8an, Kale-
jira 12,30etan Elizon-
doko Plazan.

Abenduaren 15ean,
Iruñean, manifestazioa
Xorroxin eta Euskalerría
irratientzat lizentziak
eskatzeko.

Musika

"Barricada" - 1990

Zortzi urte darama Ba-
rricadako jende honek kaña
ematen eta medioak orain-
dik ez diote kasu haundirik
egiten, zortzi urtez nahiko
diru galduz eta irabaziz.

"Hasi ginenean mutur-
ra, musika eta hitzak luze-
agoak genituen, denbora-
rekin hori galtzen joaten
da baina bertze zenbait
gauza irabazi ere". Horre-
la dio "Drogas", taldeko



abeslariak.

Denbora luzean "hea-
vy" tar kontsideratuak izan
badira ere, beuren musika

rock and roll da eta esta-
tuko hoberena, gaur egun.
Estatuko gazte guztiak ongi
ezagutzen dituzte (pijoak
ere), musika ez ezik letrak
ere. Telebista, irradi eta
bertze medioak oraindik ez
dituzte baloratzen.

Polygram-ekin grabatu
dute azken disko doblea
zuzenean eta erosteak me-
rezi du zortzi urtetako
prozesu hori ongi ezagutu
eta disfrutatzeke.

Bideo berriak



▷ "ABYSS", USA, 1989,
James Cameron.

Bere lehen filmetan-
("Terminator" eta "Aliens,
el regreso") erakutsi zigun
James Cameronek zer egi-

teko gai zen. Oraingo ho-
netan itsasazpiko abentu-
rakin datorkigu.

Zientzi-fikzioa, 7.000
metro urpean bizi diren
extraterrestre pazifikoak,
maitasuna eta aipagarrie-
na, efektu espezialak.

▷ "Gringo Viejo", USA,
1988, Luis Puenzo.

Mexikoruntz bizia be-
rritzera joaten den iparra-
merikar irakasle baten go-
rabeherak iraultza garaian
dauzkagu filma hontan.

Hain ezaguna den Jane



Fondak interpretatu eta
produzitu zuen filma hau,
argentinar Luis Puenzoren
zuzendaritzarekin.

BIDEO CLUB BERA

BIDEO BELAI - LESAKA



AFRO
REGGAE
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

IRUBIDE

ostatua
erretegia

Tfnoa: 63 71 27 LESAKA

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

BIDEO BELAI

Hamabortzero pelikulen
aldaketa eta berrikuntzak

Tfnoa.: 63 77 80

LESAKA



Fco. Martin Aiestaran

BURDIN-LAN ARTISTIKOA
450235 - ELGORRIAGA

HERRIKO OSTATUA

Tfnoa.: 59 43 25

ITUREN

HONTAZ ETA HARTAZ

Hauteskunde sindikalen emaitzak lantegiz-lantegi

Azaroaren 30 bitarte egindakoak

Lantegia izenak	CCOO	ELA	ESK CUIS	LAB	UGT	USO	Bertzeak
Elizondoko ERRESIDENTZIA	2	1					
ELIZONDOKO "El Pilar"		1					
Baztango Ikastola				1			
Lesakako Ikastola				1			
ALMACO BAZTAN				1			
SANSIÑENA Garajea				1			
Benta BIOK				1			
BAZTAN Okindegia		1					
SOBRINO Eraikuntzak						1	
Berako Ikastola				1			
GURE PALMA		1					
PALMADERA (Bera)		3					
GUREA (Bera)		1					
ITURRIA Eraikuntzak					1		
TXANTRE (Bera)					1		
JCVI Transporteak		1					
ARKAITZA (Igantzi)					1		
ARKAITZA ORMIGOIAK					1		
SAVERA (Bera)		5					
CIA Pentsuak (Bera)		1					
FUNVERA (Bera)		5		4			
LESAKAKO LAMINAZIOAK	3	9	2	5	1		3
Salto del Bidasoa		2					
SARRIO (Leitza)		11		10			

Lesakako ferien sariak

Lesakan ospatutako azienda lehiaketan, honako hauek izan ziren emandako sariak:

Betaberetan:

•Holandesak:

1. eta 2.- Altonbordako Agustin Zozaia(55.000)

3.- Biurgaraiko Gabriel Goia (15.000 pza.)

• Suizak:

1.- Gillenbordako Javier Altzugarai (30.000 pza.)

2. eta 3.- Makukobordako Luis Olaetxea (40.000)

Bigaietan:

Holandesak:

1.- Luis Olaetxea, 12.000.

Zaltaberetan:

1.- Pikabetxeberriko Martin Altzugarai (20.000)

2.- Urdinbaitako Jose M^a Andueza (15.000).

3.- J. Antonio Andueza.

Aharietan:

1.- Bordaxuriko Ignacio Mitxelena (5.000 pza.).

2. eta 3.- Lopenekobordako Javier Susperregi.



BATZOKI

**JATETXEA
OSTATUA**

Tfnoa.: 63 79 31
Lesaka

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa: 63 11 88

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

**TXOKO
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta
gosariak ematen dira

ITUREN

Tfnoa.: 45 04 91

PONTELO PONSELO KANPAINA

Kanpaina hene-kin ikusten ari dena, zera da: gizarteko sektore erreakzionarioak betiko moralitatearekin agertu dira eta honen kontraposizioaz bertze zatia, hau da PSOEtik hasi eta ezker-muturraraino, horien kontra ari dira eta ondorioz kanpainaren alde.

Kanpaina hau Sida prebenitzeko eta neska gazteen haurdunaldi-arriskua tikitzeke montatu da.

Dirudienez orain, eta estatu espaino-lean, preserbatibo

bat paratuz gero, dena moldatua dago. Preserbatiboa da antisorgailu metodorik efektiboena eta bakarra, ezta aipatzen bertzerik dagoen edo ez, hezkuntza kanpainarik ez da egin, Sidaz kutsatzeko bidez ez da deus erraten -dirudienez transmisio sexuala da bakarra-.

Nere ustetan beldurra sortzeko kanpaina da, Sidaren mamua hor agertzen zaigu beti. Kanpainaren helburu, ekonomikoa da soilik. Honela Gobernuak milioi pila aurrez-tuko ditu Sida gaitza mozten badu orain.

Kanpaina honetan pertsonak ez dira

batere kontutan hartzen, ezta beren harremanak ere. Preserbatiboak bultzatuz sexu harreman konkretu bat bultzatzen da, berez kas-trantea dena. Sexu harreman librea eta konfiantzan oinarritua murriztu egiten da -gaur egun ez da horretarako aukerarik-, bestearrengan, deskonfiantza piztu egiten du "nik ez dakit neska edo mutil horinorekin dabilen, zer egiten duen, kutsaturik dagoen..." eta ponselo pontelo badaezpada ere.

Kanpainak ez du aukerarik ematen harremanetan sakontzeko, eta na-

hiz eta Sidaren birusa eduki, norberak erabaki behar du libreki, nolako sexu harremana nahi duen eta zein aintisorgailu mota erabali behar duen.

Kanpaina hau desinformazioan oinarritzen da bere helburu guzietan, ez da hezkuntza kanpainarik egiten gazteen artean eta beraien gurasoen artean. Gurasoak normalean ez dute sexuaz hitzegiten etxean beren seme-alabekin, gaur egun oraindik nahiko tabu baita gaia.

Beste aldetik ata Sidarekin jarraituz drogazaleen artean

ematen da kutsatu kopuru altua, are gehiago Euskadin. Drogazaleak, esperientziaz dakit, honelako kanpaina bati ez diote inongo kasurik egiten, zer egiten da sektore honetan?.



Zakilixut

LOZOTEGI - JAIZONE

Itzea 3, 630786 - BERA


KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

J. M. ANDUEZA
Elektrizitate instalazioak
Bidasoa 77, Tfnoa: 63 08 54
BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

BIDASOA
TAILERRA
Bidasoa 99
Tfnoa: 630 188 - BERA

BOAN TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

KLOXKA

Legia 11 - 63 06 64 BERA

BOTXO
ostatua
Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA


SAROB
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



EUSKALDUNA
JATETXEA
Tfnoa.: 63 03 92
BERA

“Euskararen aurkako atentatutzat” hartu du irrati lizentzien banaketa Udalbatzak

Bide segurantzarako ihardunaldiak arrakasta osoa lortu zuen



Josteten bitartez, karreteran nola ibili ikasi zuten gaztetxoek



Sutearen ebaluaketa zaila bada ere, ia 3 milioikoak izan daitezke

ROMAN HARRIBILAGA

Lizentzien banaketa dela eta, “Nafarroako Hizkuntz eta Kultur ondarea den euskararen aurka atentatzeaz, Nafar Gizarte osoa eta euskaldunari bereziki dagokion oinarritzko demokrazi eskubidearen iharduna ukatzeaz eta enpresa eragile bati hiru lizentzia eman ondoren, lehiaketaren oinarrietan dekretatutako erizpideak ahaztu izateaz” salatzen du Berako Udalbatzak Iruñeko Gobernuari, Xorroxin Irratiak aurkeztutako mozioari erantzun amoz: osoko bilkuran, ahobatez hartutako akordioaren arabera. Udalbatzarentzat, Xorroxin Irra-

tiari dagokionez, “Nafarroako alderdi euskalduneko errotze eta herri aldeotasun sendoa daukan berezko egitasmoa suntsitu” omen du Iruñeko Gobernuaren erabakiak, “hamar urteko lana ahantziz”.

“Berezirik babestutako eremuak”, hasierako onarpena lortu

Aldeko sei botoez – Herrialdek 3, EAk 3, eta HBren aurkako 3ez– gehiengo osoaz beraz, “berezirik babestutako eremuak” hasierako onarpena lortu du birkalifikatze bidean, behin behineko onarpenera pasatu baino lehen.

Bide segurantzara ihardunaldiak arrakastatsu

Arrakasta osoz garatu izan dira azaroaren erdi aldera, Eztegarra Pilotalekuan egindako bide segurantzari eskeinitako ihardunaldiak, Udalak Berako ikastetxe guztietako ikasleentzat antolatu eta babesten dituen ihardueren barruan kokatutakoak. OHOk ikaslegoari egon dira zuzenduak aldi honetan, 500en batek parte hartu duelarik. Bilatu diren helburuen artean, “hiri egitura ezagutaraztea, semaforoen ezarketa, saihesbidearen zabaladura hurbila, aparkatzeko arazoak, bizikletaz gidatzea

eta ibiltarien gehikuntzarekin sortu diren aldaketei aurre egitea” aurkitzen dira, ihardunaldiak burutzeko ekimena proposatu duen Martxel Telletxea zinegotziaren eritziz.

Herriko Etxea sute batek hartu

Joan den azaroaren 28an, goizeko zazpiak aldera, Herriko Etxeko lehen solairuan dagoen Musika Eskolaren gela batetan sute bat sortu zen, bertan zegoen pianoa kiskalita geratu zelarik, baita 3 x 1,5m. neurritako zuloa sortaraziz oholtzan. Behoko solairuan aurkitzen den Posta bulegoko sabaia hondatu gertatu zen. Kalteak, 3 milioi ingurukoak.

LESAKA

Nafarroako Gobernuak subentzio kaxkarra eman ikastolari

AITOR AROZENA

Nafarroako Gobernuak hiru hilabetetarako subentzioa emanen dio "Tantirumairu" ikastolari, baldin eta ez badu onartzen honen berri izan eta berehala ikastolako arduradunek aurkeztutako errekurtoa.

Subentzio hau hiru hilabetekoa izateaz gain, bortz gelentzat bakarrik zuzendua izanen da, lau O.H.O. mailakoak eta aurre - eskolako maila bati, hain zuzen.

Gogoratu behar da, "Tantirumairu" ikastolaren egoitza izanen den Otxogorrienea etxean, guztira 9 gela jartzeko asmoa dagoela, hauetako 8 klaseak emateko erabili nahi direlarik eta bertzea laboratorio gisa erabiliko dela.

Bitartean, "Tantirumairu" ikastolan aurten



Otxogorriena obrak bukatzeaz daude

matrikulatu diren 116 haurrek, klaseak hartzen segitzen dute, Alondigan O.H.O.koak eta Bittiria karrikako egoitzetan aurre-eskolakoak.

Erran bezala, "Tantirumairu" ikastolako arduradunak, erabaki honen berri izan dutenean, errekurtoa aurkeztu dute Nafarroako Gobernuan, subentzioaren edukia berriro

aztertuko duten itxaropenarekin.

Bertzalde, erran behar da Otxogorriena obrak bukatuak daudela, jadanik gruak eta andamioak ere kendu bait dituzte.

Alondigan Jubilatu Elkarteak eraikitze asmoa

Alondiga, bonberoen egoitza eta guardia zibila-


ren kuartela izandako eraikuntzei irtenbide orokor bat ematearen alde agertu zen Udala, ahobatez hartutako erabakian, bidenabar, "San Fermin" Jubilatu Elkarteak duen lokal baten beharrari ere erantzuna emanez.

Lokal edo egoitza hau behe batean egon behar zuela eta, Alondigaren beheko aldea izan da aukeratu, honen egokitze proiektua, jadanik, Pastor arkitektuaren eskutan utzi delarik.

Odol emaileak

Odol emaileak lortzeko kanpaina burutzen ari da, hemendik aintzineria odol hartzeak Lesakan eginen direlarik.

Odola emateko interesatuak daudenek, Osasun zentrura dei dezakete, edo 637136 tfnora., Eugenia, Lesakako odol emaileen delegatuaz galdetuz.



GOIZUETA
KIROLAK

Kirolak
Mendirako artikuluak

Beheko Plaza 10 LESAKA



★ KIXKUR ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

ARRATZUBI
ARDOTEGIA

Tfnoa.: 63 72 79, Bittiria karrika - LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Beheko Plaza 8, LESAKA

FONDA
XATURETXEA

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA

Plaza eta bere ingurua moldatzeko proiektua ia-ia bukatua


Gostarioa 12-13 milioi ingurukoa izanen da

PELLO APEZETXEA

Plazako zola, baita Herriko Etxe aintzinekoa ere moldatu gogo du Udalak, horretarako proiektua prestatzen ari delarik. Hamahiru milioi inguru gastatu beharko omen dira obra horretan, baina gastu hori gainditzeko hainbertze sosa badago, dirudienez, Herriko Etxean. Nolako lana burutuko denaren xehetasunak, geroago, planoak bukatu eta ikusitakoan, ezagutzera emateko aukera izanen ahal dugu.

Igerilekua 1991an gauzatuko da

Igerilekua egiteko dirulaguntza eskatu zion Nafarroako Gobernuari 1989. urtean Etxalarko Udalak. Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Sailetik adierazi berri dutenez, eskatutako



Abenduaren bukaerarako prest egonen da Larraburua

dirulaguntza heldu den urtean jaso ahal izanen du Etxalarrak, hainbat haur eta haur ez diren ametsa betea ikusiko delarik.

Baserritarako bide breaztatzeko proiektua

Bide gehienetako zola brez edo zementoz jantzia badago ere, zenbait zati edo adarretakoa burutu gabea dago oraindik, eta o-

tsaila aldean baserritarrek eskakizunak presentatu zituzten, breaztatzeko eskakizunak, preziski. Horien proiektuak, Udalak enkargatuta, bukatuak daude, nahiz eta heldu den urtea pasa arte ezin izanen diren burutu, hirurteko bidetarako dirulaguntzak hartuak eta gastatuak baitaude. Proiektu horren aurrekontu edo presupostua 64 milioitakoa da.

Larraburuko saihebidia noiz moldatuko da?

Lehen ospitale eta orain Larraburua izen duen etxetik Arrosee alderat doan bidea moldatzea, bazterrean gelditutako proiektua da. Udalak Nafarroako Gobernuari eskatu eta honek momentuz ezezkua emanak, auto frankok erabiltzen duen bidea bere horretan segitzea ekarri du. Iriondo aldetik Larrabururako errepide bazterra moldatzekotan daudenez, ez litzateke momentu desegokia proiektua gogorazteko eta bultzatzeko. Gobernuan, Bideetako batzuk behinpehin, ontzat ematen dutela iduri du, eta Larraburua adinekoen bizileku eta egon lekutarako prestatzea, arrazoi erabilgarria izan daiteke Iruñekoak bultzatzeko.

IGANTZI

Txoperena anaiek brontzea eskuratu zuten Kuban

Oskar eta Mikel Txoperena izan genituen Kubara joan ziren igantziar bikotea, trinketez eskuz binakako mailan, hain zuzen.

Hasiera batean, zerbait gehiago egiteko itxarope-

na bazegoen ere, azkenean 3garren postuarekin konformatu behar izan zuten igantziarrak, mexikarren aurkako partidua galtzeak, finalara iristeko aukera guztiak kendu bai zien.

Hurrengoan izanen da,



ARANTZA

Bertsolari gazteak Arantzan

JON LARRETXEA

Betidanik ezaguna da Arantzan bertsotarako izan den afizioa bainan, hala ere Madariaga anaiak salbu, ez da inor ausartu plazaz plaza ibiltzera.

Badirudi hemendik aintzina ez dela horrela izanen, gaztetxoak indartsu datoz eta izan genuen aukera beuren ahaleginak ikusteko. Larunbatero Ekaitza Elkarte biltzen dira hogeiren bat gazte, gehienak aranaztarrak eta bospasei lesakar, bertsotan ikasi eta jarduteko, Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien maisutzat ditzutelarik.

Larunbatean ikusi genuenez badago itxaropenik. Etorrera onekoak dira, beraz, hortan aritzea bertzerik ez zaie geratzen bertsos munduan zerba



egiteko. Bi bertso ederrekin agurtu gintuzten:

Doinua: Aita izana kanta beharra.

ttipi-ttapa tik altxa nahi degu bertsozalearen hitza gure saioak nola diraden azaldu nahiean mintza bertso kontuei Nafar aldean laburtu zaie bitzta gu hogeit gazte saiatzen gara sendatu nahiean gaitza nahi duguna da denon artean indartu bertsolaritza

Larunbatero biltzen gerade denok zortziak aldera bi ordu bertsoz betetzen dira kantatuz denok batera azken aldera ausartzen gara puntu batzuk botatzera maite baduzu bertsoa eta maite baduzu euskera nahi badezute larunbatero gu "Ekaitza" n biltzen gera.

Bortzirietako Bertso Eskola.

Eskerrik asko eta segi hortan!

"Aingeru" goardakoen bisita

Joan den ortziralean izan genuen aingeru goardakoen bisita Arantzan. Badakizue, gaixoak gu zaintzea bertzerik ez dutela pentsatzen eta hor azaldu ziren goizeko hiru terdiak aldera, 3 Patrol ederretan, tentazio txarretan eror ez gaitezen bide egokiak erakustera. Ostatua itxi, bertan zegoen jendeari etxetik karneta ekarrierazi, irri piskat egin eta adio. Ia hurrengoan guttinez itxura atseginagoarekin azaltzen diren zeren bertzenaz, "infernuko diabruak" ez ote diren pentsatzen hasiko gara, behintzat txarraska eta guzi azaltzen badira. Halere, obedituko diegu, nola ez!, heurrek bakarrik bait dakite zer den guretzat ona, beurena baita beti arrazoia. Amen.

ZUBIETA

JUAINAS

Elurra gero eta hurbilago dugularik, estalpeko gogo sartzan zaigu, neguko enarak agertzen hasiz gero, batez ere. Aurten Xapako Fermintxo izandu da lehena, Lopeko Juanto azkena? Ostatuak, berriro, ekiez beteriko artaketetik

parren algarak kanporatuko dituzte.

Bada, bada martxa! Eta martxa gogo!

Fiestetako bilera, zailantza batzuren ondotik, egin zen. Komisione bat agertu eta musikerun kontratazioan arituko da. Eztabaida ondoren, Udalak presupuestatutako 700.000 peztei, gazteek

dutena gehitzea pentsatu zen, buila haundiko festa gogo bait dago. Momentuz izen haundiko musika talderen bat kontratatzea erabaki zen (Egan, Ake-larre, Minxoriak...) beste egunetako horien arabera egiteko. Nik, adineko jendearen parte hartzea bota nuen faltan, parte hartzen ez dutenak kri-

tikalarien taldekoak izaten bait dira huts-hutsik, edo horretan erortzerik dute, dena beti ongi ikusten duten horietatik ez badira, behinpin. Egon, gure Zubieta hontan, denetarik bait dago, kara-karan esaten dutenek; itzala eta




(bertze aldean segitzen du)

izkutua nahiago dutenek edo modu hau berri xamarra edo gutxitan erabilia.:

Anonimoa

Horrelakorik bai ez nuela espero. Egia esan behar badut, eta horrela egin beharko, murmurioa besterik ez dut aditu, ez dut ez papera ikusi ez hartu dutenekin solastu baina, diotenez, Ferminekuk, Elizondon Herri Kiroletan parte hartu zutelako firma gabeko papera hartu omen dute, kirola, familia eta txakurraren bibolina nahasiz. Nahasi egiten bait dugu dena... kirola, jolasa, izakera eta aspaldiko amorru gordiak... Ez dut nere burua profetatzat izendatuko baino...

Herri Kirolarena jolas ala seriooki hartu behar



zela idatzi nuenean zerbaitegatik esan nuen, jolasetan, eta kirolak horrelakoa zentzua du, zerako zera horietatik gehiegi botzen bait dugu, irabazi edo galtzeko momentuan.

Antoniok, erresponsabilitateak zituela eta, ia bihotza eta bizia utzi zuen eta herri kirolekoek erruduna bilaka aritu behar. Ondarrean, kanpokoei leporatzea errezagoa denez

gero... hor ustelduko da kopa... Jon Mikelen etxean. Ez hasertu! Lehengo aldian Bordatxoko pintxazuena kasik antizubitarrismoaz esplikatzten bait genuen, toma ya!


MALERREKA

Doneztebetik Saldiasera doaien bidea moldatuko da

Kurben moldaketa izanen da lanik garrantzitsuena

TXEMA ALDABE

Urrotz eta Beintza - Labaiendik doaien bidean zenbait moldaketa egin gogo dute. Leitzarako bidean egin dutena izanen litzateke gehien bat, hau da, arriskutsuak diren zenbait kurba zabaldu. Oraindik ez da zehaztu lan hauen hasiera ezta zein kurba izanen diren ere.



ITUREN

Mila planta baino gehiago hondatuak Mendauko urtegian

IBAN ISASI

Arrazoaia, ahuntz eta zerriak lixu edo aske dabil-tzala; eta gainera, ez herrikoak, kanpokoak baizik. Udalekoen partez, hurrengo-a adierazten da: "ahuntz eta zerri hauek ez badira aldarazten, abere horien jabeen izenak komunika-bideetara zabaldu eta san-tzionatuak izanen direla". Errandakoa, ale hau atera eta zortzi egunetara praktikan jarriko da.

Trikitilariak eta joaldunak Iruñera

Nafarroako Gobernuak nafar euskal-irratiei emiti-tzeko lizentziarik ez eman izanagatik, Iruñean, aben-duaren 15ean egingen den manifestazioan parte har-tuko dute aipatutakoek.



Irrati lizentzien banaketan, zeresan haundia eman du, izan ere, lizen-tzien banaketan ez baitzaie aukeraketara azaldu ziren euskal irratiei lizentziarik eman (Xorroxin eta Eus-kalerrria Irratia). Banaketa-ren honen aurka, Udal, Elkarte eta herritar ugari

agertu dira, Iturengo Uda-la barne.

Kreditoa Udalarentzat

Alkatea, azaroaren 17an Madrilera joan zen Banco de Credito Local delakoak Udalari eman dion 11 mi-lioitako kreditoaren pape-

rak sinatzera. Emandako kredito hau, Iturengo argi-indarra, frontoiaren es-talketa eta plaza berritzeko erabiliko da. Buelatu, 11 urtez egin beharko da.

Telefono berri ugari martxan

Azken bi aste hauetan telefono aunitz jarri dira. Hauek, orain dela bi urte edo, eskatuak zeuden.

Telefonoak, orainarte, batez ere Aurtitzen jarri dira.

Hamar ardirekin hogeitabortz bildots

Gezurra badirudi ere, halako kopuru hori izan di-tuzte Albineko Ignacio Ariztegiren ardiak. Hala ere, Lechavit sobera eman die bildotsei eta 16rekin geratu da.

SUNBILLA

Azaroa hotz, negua motz?

PATXI PETRIRENA

Hala dio erranairu za-harrak: "Azaroa hotz, ne-gua motz; azaroa bero, negua gero". Aurtengoa noski hotzen artean sartu beharko genuke, aspaldiko partez euria ausarki eta elurra ere Mendaurren beheiti etorri bait zaigu.

Ikusi egin behar luze-labu-rean nola joaten den ne-gua.

Etxeetako zerri-hiltze kanpaina

Malerekako Osasun Zentruak urtero bezala dei egiten du zerria hiltzean

puxka analizatzera erama-teko, trikinosis gaitzak gi-zonari dakarzkiokeen on-dorio larriez oharteraziz.

Eraman beharreko puxkak hauek dira: mingaina, saihsaren tarteko haragia, diafragma eta matel-hezurrekoa. Paper batean izen-abizenak, helbidea, telefonoa, zerria

edo basurdea den eta zerria bada bere adina jarri behar da.

Egunak, astelehena, as-teazkena, ortzirala eta la-runbata dira, 8etatik 12eta-ra Doneztebeko Osasun Zentruan. Martxoaren 2a arte.

(bertze aldean segitzen du)



Kirol jaialdi bikaina

Azaroaren 25ekoa halaxe izan zen, eta jendetza ederra bildu ere egin zuen. Perurenak esku batez 262 kilo altxatuz jarritako marka berriarekin batera, Nuarbekoen exhibizioa eta Sunbillako kirolarien joko ona izan zen aipagarriena, bai sokatiralariena bai Felix Etxeberria aizkolariarena.

DONEZTEBE

Arau Subsidiario berrien behin-behineko onarpena

Hilabeteko epea alegazioak egiteko

TXEMA ALDABE

Etxe bizitzen kokapena eta horrek bere inguruan eragiten dituen zerak: karririkak, berdeguneak e.a. onartu zituen Doneztebeko Udalak azaroaren 15ean egindako bileran.

Hain garrantzi handiko arauak, *Unión Doneztebarrako* 5 kideen botoez atera zen aintzinera.

Bileran zeuden bertze kideak (Alfredo Zugarramurdi, EAkoa eta Pello Arregi *Gure Herrikoa* kontra bozkatu zuten.

Beren ezadostasuna adierazteko, bertzeak bertze hiru arrazoi eman zituzten: bata, eraikuntzarako bolumenari dagokionez izugarritzko aldea dagoela alde batetik bertzera. Bigarrena, familia batendako etxebizitzak egiteko zenbait leku erradiotik kanpo (extraradioan) gel-



dituko liratekeela planoe-tan agertzen ez direnak eta baliagarriak bertzalde. Hirugarrena, leku batzutan familia bateko etxebizitzak

eraikitze bolumena hagitik ttikia dela, praktikan bere garapena ezinezkoa izan litezatekeelarik.

Azalpen hauek onar-

tuak izan ziren eta alkatearen ustetan ateak irekiak daude, aurrerantzean, onartutako ildo orokorren barnean jokatzeko.

Arauak eta planoak, Herriko Etxeko bilera aretoan egonen dira ikusgai hilabete batez. Denbora horixe bera da, alegazioak egiteko epea.

Arbolen landaketa eta garbiketak egiteko eskeintza

90-91 denboraldian Doneztebeko Herri-lurretan eta jardinetan egin diren landaketa eta garbiketaren berri eman zuen Udalak.

Lan hauek konkurtsora aterako dira, lan eskeintzak aurkezteko epea abenduaren 10ean akitzen delarik.

BAZTAN

Juradoen aukeraketa Abenduaren 23an egingen da

BA Nafarroako Gobernura zuzendu da kontrola eskatuz

MAÑONE



Datorren Abenduaren 23an ospatuko diren juradoen aukeraketarako hauteskudetan Nafarroako Gobernuaren esku hartzea eskatu du Baztango Alkartasuna alderdiak, bertan ematen diren irregulartateak direla eta.

BAREN ustez "hauteskunde hauek ez dute minimo demokratikoak betetzen eta horregatik eskatzen dugu Nafarroako Gobernuaren partehartzea".

Aintzineko urteetan agertu diren irregulartateen artean, boto papeleten tamainaren "ezjakintasun orokorra" eta normatiba eza apoderatu eta interbentoreen aukeraketari dagokionean.

Azpimarratzen du baita Baztango Alkartasunak, "aunitzetan hauteskudetarako kandidato diren berberak, mahai elektoralen lehendakariak ere suertatzen direla".

Baztango Udalak, bere "ezetza ofiziala" ematen

du talde politikoei zentso elektoralak eskeintzerako orduan, eta arrazoi guzti hauek iluntasun handia ematen diete hauteskunde hauei.

Xorroxin irrtiak kanpaina hasi

Xorroxin Irratiak kanpaina bat hasi du, FM lizentzia eskuratzeko. Jakina den bezala, Nafarroako Gobernuak Elizondoko lizentzia "Información por Ondas, S.A"-ri eman zion, nahiz eta Xo-

roxin Irratiak, azkeneko hamar urte hauetan, baztandarren zerbitzuan lanean aritu den.

Kanpaina bi zatitan bana daiteke. Lehenengoa, etxez etxe, Baztan, Malerreka eta Bortzirietan sinadurak biltzea da. Kanpainaren bigarren ardatza, jaialdi eta rock kontzertu bat egitea izango zen, Xorroxin irrtiak kulturaren beste arloetan lana egin duela ere erakusteko.

Abenduaren 15ean,

Iruñean manifestazio bat egingen da Euskalerrria irrtiarekin batera antolatu delarik. Elizondon ere, kalejira bat egingen da abenduaren 8an eguerdiko 12.30etan plazan.

Xorroxinek bertaldea, Colinen hitzak gogor salatuzituen. "Nola errandezake insolbenteak garela, hamar urte lanean aritu garelarik. Ez gara aberatsak baina zorrak ordaindu eta diru pixkat geratzen zaigu, lizentzia lortuz gero".

BEATRIZ

Lurrin denda

SANTIAGO 53 - Tfnoa: 5802 83 - ELIZONDO

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

German Golfo Pertsikorat ???

MARGARI eta KORO

Soldaduskarakoz azken zozketa honetan German ginuen herriko gazte "suertedun" bakarra. Eta ez du, preziski, suerte onenarik izan. "Marina"rat gatea tokatu baitzaio.

Golfo Pertsikoko iskanbila hunekin itsasoko destinoa zen beldurgarriena eta hau tokatu zaio. Orain hor dabil aferatua igeritako klaseak hartzen ikasitako "estilo" guztiak perfektionatu nahiean; flotadore xarmanta erositu du (arriku guztiak kontutan hartuz) eta arabe hizkuntza ere ikasi nahi du bainan erakustailerik ez omen du harrapatzen...

Barkatu, bainan azken



hauek gezur hutsak dire. Gure German ez dabil halako zozokerietan, alrebes: bere ustez, tokatzen zaion ordurakoz (1.991 azkenean) konponduak izanen dira guztiak eta sekulako "vacaciones en el mar" hartu behar omen ditu.

Eliza

Gauza guztiak ez badi-

ra zaintzen ondarrean apurtu egiten dira. Eta hori gertatu da gure elizan. Uste dugunez, teiltatuaz aparte 1.953 urtetik hunat ez da bertze moldaketarik izan eta pittaka-pittaka paretetako igeltsua arrailtzen gaki zen, eta ondarrean puska haundisko bat erori da.

Ikusi dugunez igeltsua-

ren azpian harrizko paret eder bat dago. Orain ez dakigu zer egingen den, harriak agerian utzi edo lehenago zen bezala utzi. Beti ere, bertze gauza diruaren afera izanen da.

Kuba - 90

Aski harro gara hemen-go seme bat Kubako Munduko Txapelketan jokatu zuelakoz, pala lagurreko modalitatean. Kote Agerez mintzo gara. Kote, Donibane Lohitzunerat gan zan bizitzerat, eta Miarrizteko Klubarekin jokatzeko hasi zen. Lau urtez Frantziako sub-kanpeona gelditua izan da eta Kuban, finalerat ailegatu ziren bainan hemen ia galdu zuten eta azkenean 2. gelditua. Hala ere, zorionak!!

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA
KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO



Galarza



Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO

ARROPA DENDA



**CERVANTES
HELVETIA SEGUROS**



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Eguberrietarako publizitatea
ttipi-ttapan

Zure iragarkiak inguru honetako 3.500 etxetara
zabaldtu nahi badituzu, deitu 63 11 88 telefonora



FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak
ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 4503 64

Bukatuxeak daude baserriko bide berriak

Ormigoizko bide ederrak 83 baserritara



Errailiz (Goriztata)

ANTTON

ANTTON

Esan daiteke baserritarako bide berriak botata daudela, lan guztiak erabat bukatuta ez badaude ere. 21 kilometrotan, eta Leitzeko baserri gehienak hartuz, bota da ormigoizko bidea. Orain gelditzen dena: bide ertzak berdindu, ur bideak hartu, kasu batzutan... lanak urte hontan bertan bukatuta geldituko omen dira.

202 milioitako lanak egin dira. Diru hortatik,

%16a gutxi gora-behera baserritarren kontura. Bide berriek 15 zentimetroko lodiera dute, eta 2.80 metro zabalera.

83 baserritako atarira iritsi dira egindako bideak.

Auzoa Zenbat baserritara bide berria

Goriztaran.....	22
Erasote.....	9
Sakulu.....	13
Erreka.....	7
Arkiskil.....	32

Beste baserri bakan batzutar ere egingen omen dira, bigarren fase batean.

“Aurrera”: indarrez ahul, baina aurrera

Ez da kanpaina txarra Aurreraren ekipo titularra burutzen ari dena.


Hasiera bateko indarrak eta sukarrak motteldu badira ere, ongi eusten diote seigarren-zazpigarren lekuari.

Aurrerak aurten oso ekipo gaztea duela kontutan hartu behar da: igandero hamazazpi urte ingurukoak osatzen dute ekipo erdia. Gainera bi beterano falta ditugu: Elias-ek utzi egin du, eta Fran min hartuta, lesionatuta dago, eta

luzerako gainera.

Jubenilak ere taularen erdiko aldean dabilta, baina hauen helburua gainera ez da oso ongi joatea, futboleko ikasi eta goiko ekipo titularrean oinarri eta harrobi izatea baizik.

•**Esku Pilota Txapelketa.** Hamabi bikote osatu dira, haur, gaztetxo, eta gazteen artean. Lehen kanporaketak ostirala ilunabarretan izanen dira. Lehen final erdia erregetan eta finalak Herriko Iñaurietan, ohitura den bezala..



Juanxo (entrenadorea), Iturrarte, Buldain, Aikorta

FEIX

Umore Ona dantza taldeak bere eguna ospatu zuen

ESTEBAN AROZENA

Umore Ona elkarteak antolatzen dituen ekintzetako bat burutu da, bere dantza taldeari eskeini zion eguna, hain zuzen.

Taldeak eskeini zuten emanaldiaz gain, aipatu behar, ondoren bizi izan genuen momentu hunkigarria. Umore Ona elkarteak, Bittor Iribarrenek eta Bixente Hernandorenak bete duten lana eskertuz plaka eder bana oparitu zien, eta esan bezala emozioa gainezka zegoen apaizaren hitzetan eta Patxi Iribarrenek bere aitaren izenean eskerrak eman zuenean.

Patxi bost urte igarotakoan taldeko monitorea bezala, bere agurra eman



dio langintza horri, dakien guztia erakutsiz. Hemen-dik aurrekoa bere ikasle ohia den Unai Mirandaren eskutan utzi du. Neskeei erakuste lanetan Xole Etxegiak eta Rosa Mari Olaizolak segitzen dute.

Gure herriko dantza talde honek hedapen haundia izan du azken

urtetan, honen errudunak Umore Ona Elkartearen laguntza eta irakasleen lana izan dira, taldea osatzen duten dantzariekin batera, noski.

"Xalto"ren oroimenez ekitaldiak

Goizuetar guztiak dakiten bezala, herriko es-

kolek, Andres Narbarte "Xalto" izena daramate eta Azaroaren 30a San Andres zenez, eskola hauetako irakasle eta haurrek ekitaldi batzuk antolatu zituzten hainbat urtez Nafarroako txapeldun izan zen bertsolariaren oroimenez.

Bertso eta marrazki lanak, Imanol Urbietaren kantaldia eta Oiartzungo bertso eskolako haurrek Goizuetako trikitalari ttiki-ekin batera eskeini zuten saioa izan ziren hiru egunetan zehar burututako emanaldi interesgarrienak. Antolatzaileen ustetan, zuten helburua ongi bete da, hau da, "Xalto" zena- ren irudia ezagutaraztea haurrei batez ere.

Zertan dago Sarako Gaztetxea?



OLAIN ELKARTEA

Duela aste batzu, bilkura bat izan zen proiektuen erabakitze gisan. Bakoitzak bere eritzia eman ondoren, puntu batzuren inguruan ados jarri ziren. Hala nun, lehen aktibitate bezala hautatu duten mendi ateraldi batzuren antolatzea. Hala bizpauru egunez ibil liteazke mendizale gazteak, mendian. Gazte batzuek nahi lukete ere gonbidatu

Miguel Angulo bezalako mendizale ospetsu bat: gure inguruetakoko mendi eta tontorrek aurkeztuz (argazki, bideo bitartez...) sortaraz lezake beharbada gure baitan gorderik dagoen gutizi zenbait eta zergatik ez, gutarik zenbait mendizale amorratu eta ospetsu bilaka arazi, aldi berean ...

Bigarrenekorik aipatua izan zen ere lehiaketa batzuren antolatzea bai pilotan, bai musean. Ez da

ahantzi behar jadanik Euskal kurtsoak emaiten direla Gaztetxean eta proiektu hauen gauzatzeak bakar lezake animazio ineresgarri bat gure herrian.

Agian paper gainean datziak izan diren ideia guzi hauek ekarriko dute fruitu ondoko astetan.

Kirolak

• Pilota: Lapurdiko lehiaketa (eskuz). Azaroaren 16ean jokatu da finala Baionan Trinquet moderno delakoan. Hor aritu da Pierre Arotzarena eta Michel Dibar saratar bikotea. Galdu dute J.M. Mendy senperetarra eta J.C. Inda

azkaindarraren aurka. Irabazleak, Mexique herrialderat bidai bat ukan zuten saritzat.

Mus Txapelketa

Abenduaren 14ean hasiko da mus txapelketa. Herriko Etxeko edantegian, ortzirale guziz arratseko 9etan.

Santa Katalinako bestak

Baratxartea ostatuan, Ithalar auzoan tripotx jatea egin da Azaroaren 24ean Santa Katalinaren karietara. Erran behar da duela hogoi bat urte antolatzen zirela Ithalarreko bestak, kaperaren inguruan.

URDAZUBI

Mus Txapelketaren hasiera laister

ALIZIA OLAIZOLA

Bertze urtetan bezala, urten ere egingo da Mus Txapelketa. Oraindik ez dakigu zenbat bikote izanen diren, apuntatzeko lepea Abenduaren 14an bukatzen baita. Jadanik, begurik badira frango izea eman dutenak eta noiznahi hasiko da "Indiano Baitan" ospatuko den txapelketa. Mus partiduak arratsetan jokatzen dira giro ederrean, gero muslarietragoxka batzuk edan eta "pixtu-pixtuak" txetxean sartzen dira eta ama edo emaztea animareko muturrarekin espe-



Joan den urteko mus txapelkunak

ruan izaten dute.

Dantzaldi ikasketak

Azaroan, Urdazubiko eta Zugarramurdiko 6 urtetik goitiko haurrak Ainhoako herrian dantzaldi

ikasketan hasi ziren. Dantza klase aunitz ikasten dute alderdi hontakoak, adibidez, eskudantza, purdidantza, zortzikoa, etabar...

Larunbatero, arratsaldeko 3.30etan hasten dira 5.30ak arte. Zugarramurdiko autobusean joaten dira. Dantzaldi hauen buru kontukoek, dantza jantzi-tarako dirua ateratzea pentsatu dute, besta txiki batzu eginez (xardindak...)

Eltzeen erakusketa

Azaroaren 23an izan zen sukaldeko eltzeen erakusketa bat, goizeko 11etatik arratsaldeko 6ak arte, klase guztietakoak. Honen antolatzailea, Iruñean lan egiten duen Urdazubitar bat izan zen.



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km
IRURITA - BAZTAN

✓ Sukalde,
logela,
jangela eta
egongelarako
mobleak

✓ Koltxoiak

ARMUA
Jatetxea



Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 58 9131- URDAZUBI

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa.: 63 11 88

EZKONTZAK

Maria Jesus Gallardon Iribarren eta **Miguel Lasa Martiarena**, Etxalar eta Irungoa, azaroaren 17an.

Juan Camino Agerrebere eta **Maria Pilar Elizagoien Etxegarai**, Amaiur eta Arraiozkoa, azaroaren 24an.

Julia Herrera Porrino eta **Bernardino Telletxea Ezkurra**, Lesaka eta Saldiaskoa, azaroaren 17an.

Martin Etxenike Irigoien eta **Maria Angeles Sarratea Gamio**, Ziga eta Zozaiakoa, azaroaren 3an.

Jeus M^a Matxikote eta **Rosa Sein**, Igantzikoak, abenduaren 1ean.

Julian Goñi Pikabea eta **M^a Loinaz Guenbelzu Almandoz**, Elizondokoa eta Sunbillakoa, Urriaren 27an.

JAIOTZAK

Marion Iramuno, Saran, Azaroaren 19an.

Ane Martin Larriu, Elizondon azaroaren 14.

Xabier Goñi Legarda, Lekarotzen, azaroaren 15ean.

Ainhoa Saldias Mutuberria, Beintza-Labainan, azaroaren 20an.

Ahielene Urriza Otxoteko, Lesakan, azaroaren 20ean.

Iñaki Pikabea Larralde, Lesakan azaroaren 20ean.

Laura Mitxelena Arriada, Lesakan azaroaren 22an.

Garaxi Retegi Antzizar, Lesakan azaroaren 29an.

HERIOTZAK

Juan Zelaieta Mendikoa, Garzainen, azaroaren 19an.

Angel Agirre Lairez, Etxalarren, azaroaren 24ean, 64 urte.

Luis M. Amorena Lournagarai, Zugarramurdin, azaroaren 20ean, 38 urte.

Josefina Etxeberria Egui, Zugarramurdin, azaroaren 24ean, 75 urte.

Fermin Perurena Oartzabal, Goizuetan, azaroaren 2an, 72 urte.

Petra Goyatche Irtzoki, Saran, Azaroaren 27an, 77 urte.

Maria Gertrudis Goya Iraola, Beran, azaroaren 19an, 82 urte.

Paula Iturralde Olatxea, Lekarotzen, azaroaren 14ean, 88 urte.

Maria Josefa Migelena Urroz, Elgorriagakoa, azaroaren 20an, 89 urte.

Bittori Gorosterrazu, Iturengo, azaroaren 23an, 60 urte.

Jesusa Telletxea, Donamarian, azaroaren 26an, 70 urte.

Maria Mutuberria, Beintza-Labainan, azaroaren 28an.

Primitiva Iturria Zozia, Lesakan, azaroaren 20an, 77 urte.

Sartu eta ikusi

zure galderak gustora argituko ditugu

ALTZURI ELEKTROGAILUAK

Bittiria 41, Tfnoa 62 75 31 - LESAKA

Lan munduaren alde beltza

Noizbehinkako eta ezkutuko lana

Azken denboraldi hauetan prentsan, irratian edo telebistan, langabeziari buruzko datuak agertzen zaizkigunean, nahiko baikorrak dira. Lanik gabe dagoen langile kopurua puntu bat edo bi jautsi dela, lanpostu berri aunitz sortu dela,... eta gisa horretako berriak azpimarratzen dituzte. Baina, erraten ez digutena, zera da: sortu diren lanpostu horiek, zenbateko iraupena duten.

Sindikatu ezberdinek argitaratu dituzten datuen arabera, azken urte hauetan egin diren kontratuetatik %80-90a noizbeinkakoa edo ebentuala omen da.

Bortzirietan, adibidez, langabe dagoen jende kopurua ez da hainbertzekoa. Dena dela, oraingoan, lan-kontraturik gabe edo ezkutuko lanetan ari diren langiletaz arituko gara; baldintzetaz, egoeraz, batz-bertze irabazten dutenaz etabar...

Lantxo hau egiten hasi genuenean, zerbait zehatzago edo datu gehiagorekin ematea pentsatu genuen.. Baina azkenean, benetan zaila egin zaigu segidan eskeintzen ditugun datuak ere lortzea.



Noizbehinkakoak edo ebentualak

Horrelako kontratuak, gehienbat lantegi haundietan egiten dituzte. Hilabete, sei-hilabete eta kasu batzutan urtebeteko kontratuak izaten dira.

Legearen aintzinean baldintzak osatu arren, beuren egoera zalantzakoa izaten da. Nagusien aintzi-

nean, langileek "zintzoak" behar dute izan, bertzenaz, kontratua akitu eta gero, hurrengoan, ez bait dituzte hartuko gaizki portatzen badira.

Lantegian, postuz-postu erabiltzen dituzte eta, istripuen arriskua areagotu egiten da; egiten duten lana ez bait daiteke egun bate-tik bertzera ikasi.

Hauteskunde sindikale-

tan botua emateko eskubidea izateko, lanean hilabete bat behar dute bete gutienez eta hautagai izateko, berriz, sei hilabete.

Irabazten duten soldata, normalean, mailarik apalenari dagokiona izaten da, kontutan harturik gainera, ez dutela aintzineko-tasun edo antigüetaterik jasotzen.

Modu honetan ari diren langile kopururik haundiena Laminazioetan daude, ia 300 inguru direlarik. Normalean, gehienak gizonetzkoak dira. Emakumezkoak, hein haundi batetan, garbiketatarako eta sukaldarako kontratatzen dituzte.


Ezkutuko lana

Sail honetan, lan-kontratu edo lan egiteko era aunitzetan ari direnak sartuko ditugu.

Zenbait kasutan, bertze enpresa batentzako egiten dute lan eta bakoitza bere etxean aritzen da.

Gehienbatean emakumezkoak dira eta egiten dutenaren arabera kobratzen dute, hau da, pieza bakoitzeko horrenbertzeko bat. Beraz, ez dute ordutegi fijoak, nahiz eta aunitzetan, eroslea den enpresak estutzen badie, ordu pila bat egin behar izan.

Aseguru sozialik izan nahi badute, bakoitzak ordaindu behar du berea.



Gehienetan, joste, montatze edo antzeko lanetan jarduten dute.

Badira modu honetan ari direnen artean, kooperatiba gisara funtzionatzen dutenak eta bertze batzuk enpresa bezala.

Kooperatiba gisara ari direnak, lokalak, makinak, aseguru soziala eta gaintzakoak, beurek ordaindu behar izaten dituz-

te. Enpresak, bakarrik materialea jartzen du.

Baserri edo etxeren baten beheko pisuan aritzen dira; beraz, kondizioak ez dira hobereak izaten.

Ateratzen duten soldata arrunt zaila da zenbaitzeta, lehen aipatu ditugun baldintzengatik, baina, hilabetean 35.000-60.000 pezeta bitartean egon daiteke.

Noski, erran beharrik ere ez dago, oporrak eta horrelakoak beuren kontura arituz gero, aunitzetan, ez dituztela hartu ere egiten.

Enpresa ttikiak bezala aritzen direnetan, nagusiak, lokala, makinak, materialea eta bertze tresnak jartzen ditu. Kasu aunitzetan ez diete ez oporrik, ez aseguru sozialik ez soldata extrarik ordaintzen.

Lan kondizio txarretan aritzen dira, hezetasun haundia dagoen etxetan aritzen bait dira. Soldatak, berriz, eskasak izaten dira, aunitzetan hilabeteko 50.000 pezetatara ez da ailegatzen, horretarako egunean 10-12 ordutako lanaldia eginez.

Ezagutu ditugu kasuak, hilabeteko bakarrik 25.000 pezeta jasotzen dituztenak, egunean 8 ordu jardunez.

Eskubide sindikalak erabat baztertuak dituzte, eskakizunak ia-ia debekatu daude, ez dute kome-niorik kontutan izaten. Eta zer erranik ez... lantegi hauetan ez dituzte hauteskunde sindikalik egiten.

Hasieran aipatu ditugun arrazoiengatik, arrunt zaila egiten da lan hauetan ari direnen kopurua zuzen jakitea eta seguraski, zenbait xehetasun eskapatu zaizkigu. Bertze batetan izan beharko.

PELLO ASTIZ



Arizkungo antzerki taldea: edo urtean bat, bederen!

Gure herri hauek, batzutan, harrigarriak dira. Egunak joan, egunak etorri... egunerokotasunik kasik deus ez bait da nabarmentzen... Gutxiegi bait gara! Sakabanatuak gainera! Gaztedirik ez bait dago!

Baina, noizbehinka, deskuidoan bezala, han edo hemen, hau eta hori eta hura dela, horrelako mirakuluak ematen dira. Gaurkoa ez da kirola, politika edo loteria... Kultur ekintza, hi! Euskaraz eta Arizkungo herrian, hirugarren urtez, antzeslana antolatu dute!

Ikus-entzutera joan nintzen... Herriko errebestak ziren... Goiko eskolako atzeko atetik, trastez jositako pasabide bat gaindituz gero, jendez betetako gela bat topatu nuen... Telesforo Monzonek idatzitako "Hazparneko anderea" martxan zen...

Handik egun batzutura antzerki taldearen partaide batzurekin elkartu nintzen: Elurre Iriarte, Rakel Goñi, Maria Tamayo... Juanjo Neol azaldu zen, baita, elkarrizketa kasik bukatua gurela, lagunek erranarekin bat etorri zen.

Lehendabiziko galdera obligatua zen. Nondik eta nola sortu zen guzia?

"Arizkungo kultur taldetik –erantzun zidaten ahobatez–, Dantzari taldea sortu zen bezala, antzerki eta zankudoak egin asmoa norbaiti bururatu zitzaion. Onttoak bezala!" –bota zuten irri algaren artean.

Hain erraza balitz! Nere zalantzak agertu nizkien: lan taldea, antzerki obrak, entsaiuak, prestakuntza, eskenatokia... eta, bai noski! Gauza guztien antzera azpilanaren beharra.

–"Zortzi lagun hasi ginen"– erran zuen Elurrek.

–"Bai, baina aurten hamar gara"– Rakelek borobildu.

Denak arizkundarrak?– galdetu nien–.

–"Bai, bueno ez! Iruritako Kotte eta ni –zioen Rakelek– Elbetarra naitzela. Bertze guztiak arizkundarrak dira.

Elurrek, bere aldetik, Rakel eta Kotte Arizkun

herriko alaba maitetzat hartzen zituen biak... eta horrela segitu genuen.

Sorrera konkretuagatik galdetu nien eta Juanjo Neoleri leporatu zioten dena, berak izan bait zuen ideia. Aurtengo obra hirugarrena da, aintzineko biak "Herriko bozak eta herriko alkate" iaz, eta "Beteluko Balnarioko mirakulua" izandu direlarik. Antzerki lanak eskuratzeko bidea bera, bitxia suertatzen zai-

gu, zeren Juanjok, Xan Leon Indart-i eskatu zizkion, nork, bere aldetik, Daniel Landart-en eskutik lortu bait zituen...

Entsaiuak, bataz bertze, bi astetakoak omen dira, norberaren papera ikasi, saioa egin... eta eskenatokia prestatu, dekoratuak baita, nola ez, bada! Eurak egiten bait dituzte, eurak, ama martxosa pare baten laguntzaz, denetara ailegatzaren diren horietako bi ahizpa -uste dut- Izaskun Garbalena eta Maria Tamayoren amak, hain zuzen ere.

Izaskunek dauka, Elur-rekin batera, marrazkiak egiteko kargua, gero margotzea guztien laguntzaz egiten omen da... Arropak bilatu behar dira baita, gehienetan bakoitzak bereak edo berak lortutakoak. Bereziak direnean, aurtengo sotanak bezala, norbaiti eskatu behar. Arizkungo erretorari eskatu zizkieten "Hazparneko anderea"n agertzen diren biak, Rake-len ustez, horietako bat Baztanen sartu zen kotoiz egindako lehena delarik.

Udal-laguntzarik hartzen duten galdetzea nahitaezkoa nuen eta... ezetza borobila! Izatekotan traba eta oztopoak izan omen dituzte, Baztango eta Arizkungo agintarien aldetik. Kexu dira, nola ez!, euskararen aurka dagoen giroagatik. Jesus, Maria eta Joxe! Hori nobedadia!



Bertze herritara ateratzeko prest dauden galdetu

nien bukatzeko. Baietzak eta zalantzak elkartzen zi-

ren erantzunean. Abenduaren 6ko zubi horretan solasteko geratu ziren, Juanjok, gauzak argitu behar direla uste bait du. Baietza hartuz gero, Male-rrekako Euskara Zerbitzuak kontratatu nahi ditu, Gabonetako kanpainan parte hartzeko.

Planak ba omen dituzte, subentzioak lortzeko saiakerak... sendotzeko edo finkatzeko beharra, argi eta garbi! Zerbaitetarako balio baldin badu, hara hemendik gure animoak.

Dena den, solasten ari ginela, handik zebilen Mariaren anaia den Fernandok erraiten zuena: gero ta hobeagoak egiten dituzue!

Hori baino pozgarriagorik?

JUAINAS

Eskualdeko Kirol Batzordeak, datorren urterako diru-laguntza deialdia zabaldu du

Aktibitate programak abenduaren 29a aintzinetik aurkeztu beharko

1991ko kirol aktibitateen plangintza ahalik eta hobekien egiteko, dei egiten zaie kirol talde, elkarte eta abarri, beraien kirol aktibitateen programak aurkezteko. Epea, Abenduaren 29rarte zabalik dago.

Nork eska dezake laguntza

Baztan - Bidasoa eskualdean (Baztan, Malerreka, Leitzaran eta Bortziriak) bizi den edozein pertsona, talde edo elkarrek.

Zein aktibitate-tarako dira diru laguntzak

(Haur - Gazte - Heldu edo Jubilatua)

1 - Lokala

Herri bakoitzean egiten diren aktibitateak, adibidez:

- Herriko pilota txapelketa, futbito txapelketa...
- Iraupen gimnasiarako.
- Haurtzako kirol eskolak, etabar...

2 - Zonalak

Zonalde bakoitzean egiten diren aktibitateak. Hau da, Baztan-Leitzaran-Bortziriak-Malerreka mailan egiten diren aktibitateak, adibidez:

- Zonaldeko futbito txapelketa.
- Zonaldeko mendigoizaleen irteerak.



zaleen irteerak.

• Zonaldeko eskolen arteko txapelketak, etabar...

3 - Eskualdekoak

Eskualde osoko pertsonen parte hartzen badute aktibitate horietan, adibidez:

- Mendigoizaleen eguna (Baztan-Bidasoa).

• Herri kirol txapelketa, etabar... (Baztan-Bidasoa)

Non eskatzen ahal dira

Zonalde bakoitzeko kirol bulegoetan.

- **Baztan:** Elizondon (Tati, 58 00 06 tfnoan.).
- **Malerreka:** Iturenen (Mikel, 45 03 02 tfnoan.).

• **Leitzaran:** Leitzan (Peru, 51 01 03 tfnoan.).

• **Bortziriak:** Lesakan (Mattari, 63 70 05 tfnoan.).

Noiz arte eska daitezke laguntza hauek

Epea Abenduaren 29an bukatuko da. Ondotik eskaera guztiak ikusirik, diru laguntzak banatuko dira. Horrela, Urtarrilean jakinenu dugu 1991. urtean zein aktibitate izanen diren, harranola bakoitzari dagokion diru laguntza (kirol aldizkari bat ateratzeko asmoa badago).

Ikusiko duzuen aukera ederra dago diru laguntza hartzeko, faltaden gauza bakarra litzateke: jendea, aktibitateak antolatzeke gogoz egotea.

MATTARI ALTZUARTE
Bortziriako Kirol Zerbitzua

Herri Kirolak



Sunbillan egindako jaialdian, errekor berri bat lortu zuen Iñaki Perurena leitzarrek, esku bakarrez 262 kilotako zilindrika altxatuz.

Hamabostaldiko jokaldiak

Jokaldirik hobereña

Kotte Yanci, Beti Gazteko entrenatzailea.

Entrenadore Nazionalako ikastaroak badirudi efektoa egin diola zeren eta bost partidu galdu gabe diraute lesakarrek, azkeneko tokitik aldeginenez.

Jokaldirik txarrena

Maidar Susperregi, Bortzirietako jubenil esku-baloitaldearen atezaina.

Arbitroari ezin zaio inolaz ere metro batera (ezta ere kilometro batera), "corte de mangas" itsusi bat egin. Kirola deportibitatez hartu behar da.

Futbito



Bortzirietako K.E.ko nesken futbol aretoko taldea; hasiera kaxkarraren ondoren, ari dira poliki poliki burua altxatzen.

Bortzirietako



Bortzirietako K.E.ko "kuadro teknikoa". Bakoitza bere taldean gogor ari dira Bortzirietako kirola lantzen.



Guzi hauen
zerbitzura gaude

koxka

KOXKA NAVARRA, S.A.

ZERBITZU TEKNIKOA

BERAN: 63 08 98 Tfnoan.
IRUÑEAN: 26 64 11 Tfnoan.



Lore artifizial eta naturalak, arropak, euskal keramika, zumezko mogleak, saskiak etabar.

Bittiria, Tfnoa: 63 74 94
LESACA

Senda belarrak: *Plantain* edo zain belarrak

Deskribapena: Plantain belarra edo zain-belarra izenarekin klase bereko hiru espeziak izendatzen dira eta hirurak propietate berdintsuak dituzte. Latinez "plantago lanceolata" izenarekin ezagutzen dena da ugarien gure lurraldean. Belageietan, azindari jate-
ra ematen zaion belarren tartean sortzen da eta baita baratze eta hezetasuna dagoen bide bazterretan ere.


Udaberri eta udan loratzen da. Senda-belarretarako landarea oraindik freskua dagoenean edo idortuta, eta batez ere bere hostoak erabiltzen dira. Ia urte osoan bil daiteke.

Konposizioa / ezaugarri eragileak:

"Muzielagoak", "pektinak", "taninoak", "aukubosideak".

Propietateak:

Inflamazioaren aurka erabiltzeko ona da, flemek xamurtu eta botarazten ditu, eztula baretu, pixa



a) Plantago Lanceolata L.
b) Plantago Media L.
d) Plantago Major L.

eragin, mikrobioak ezabatu eta zauriak sendatzeko aproposa da.

Erabilera:

• **Kanpotik:** Larru azalaren gainean jarrita erabiltzen da zauriak eta ebakiak sendatzeko duen gaitasunagatik.

Oratutako hosto freskuak konpresatan bildu eta zaurien gainean jarriz gero; zauri egin berri eta zaha-

rrak, urdaileko eta barizetako ultzerak, erredurak, ahoko zauriak eta intsektuak egindako hautsikiak sendatzeko balio du.

• **Hartuta:** Infusio bidez hartzen bada, aproposa da arnasartzeko organuak sendatzeko dituen ahalmenagatik. Honela hartu behar da: ur baso bakoitzari irakiten dagoenean bi kutxare haundi plantain - be-

lar idorrarekin beteta bota, hamabost bat minutu estalita eduki eta, infusio bezala hiru aldiz egunean hartu otordu nagusien aintzinatik.

• Honela prestaturiko infusioak zintzurra eta ez-tarriko mina, bronkitisa nahiz eta zaharra izan eta sinusitisa sendatzeko aproposa da.

• Leundu eta goxatzeko dauzkan ahalmenagatik, urdaila eta ertzeen eritasun eta gaitza desberdinak sendatu eta osatzeko erabil daiteke; gastritisa, urdaileko ultzera, kakeria, etab...

• Bitamina "C"-n duen ugaritasunagatik, bere hosto freskuak entsaladari gehituta har daitezke.

• Era berean, gorputza garbitu eta indartzeko balio du, gizonaren osasuna bere onera ekartzeko lagungarri ona gertatzen delarik.

ALBERTO ITURBE
Medikua

GAIA

OSASUN-DENDA
BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK

- ✓ Mediku naturista
 - ✓ Reflejoterapia
 - ✓ Dieta mota guztiak
 - ✓ Kosmetika tratantea
 - ✓ Alternatiba osasungarria -kimikarik gabea-
- Zatoz konfiantza osoarekin

Bittiria 6, Tfnoa: 637410 - LESAKA

MEKANOTERAPIA ZENTROA
LUR APAL

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

Eguberrietarako publizitatea
ttipi-ttapan

Zure iragarkiak inguru honetako 3.500 etxetara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 telefonora

ARO BERRIAREN ATARIAN

Astrologia

Izarretara begira


Zerua abenduan

Hauxe da garai hone-tan, lainorik ez badago, gauerdiko aldera zerura begiratuta ikusi ahal dena. Hegoalderantz begira jarri behar da eta kontutan hartu eguzkia eta ilargia bezala gaueko izarrak ere mugitzen direla ekialde edo sortaldetik mendebalde edo sartaldera orduaren arabera.

Nola ezagutu

Planetek eta izarrek argi ezberdinak dituzte: izarrek dir-dir egiten dute, piztuzailiz ari bailitzan; planetak haundixiagoak dira eta argi fijoak daukate. Jupiter gauerdiko ondoren altxatzen da ekialdetik eta zuri-zuria da. Martitze (Marte) gorria da eta gau osoan ikus daiteke.

Joan den larunbat gauerdian (abendukoak 1), ilargi beteak Marteren ondoan zegoen. Datorren ortzegunean, abenduaren



Konstelazioak: 1 - Orion; 2 - Tauro; 3 - Geminis; 4 - Cancer; 5 - Pleiadeak

Planetak: J - Jupiter; M - Martitze (kolore gorrikoa)

Izarrek: S - Sirio; PR - Procyon; A - Tauroko Aldebaran, C, PO - Castor eta Pollux, geminiskoak

Ekliptika (E): eguzki, ilargi eta planeten bidea

6an, ia husten hasia, Jupiterren parean pasatuko da.

Procyon eta Sirio dira izarrik haundienak. Gure latitude hauetan zaila da Sirio ikustea sobera apal izaten baita eta leku gehienetan mendiek topatzen dute.

Idurimena lanean

Herri bakoitzak izen diferentea ematen dio astro berei, beraien tradizio edo mitologiaren arabera.. Horrela bada Tauro konstelazioan zezenaren burua ikusten zuten, Geminisen bi bixki; Cancerren karra-

marro bat; Orionen gudari erraldoi bat, arku eta guzti.

Erran behar ere Orionen "gerrikoan" ondoan diren hiru izar horiek herriko zaharrak, **hiru erregeak** deitzen dituztela.

FERMIN ALTZUGUREN

Zertitaren

San Migel auzoa 27

DONEZTEBE

A R R O P A K

BERRIKI IREKIA
DUGU
ZATOZ
BISITAZERA!

Tfnoa: 450883

MERKATU TTIKIA

▼ Etxebizitzak

•**Berako Legia karrikan** pisu bat alkilatzen dut. Tfnoa: 630217.

•**Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa: 637410

•**Doneztebe** inguruan, 3.200m² duen borda bat salgai. 1.200.000. Tfnoa: 450054.

•**Baserri bat** bere eremuarekin erosiko nuke bertan bizitzeko. Bere egoerak ez du ajolik. Tfnoa: (943) 429378.

▼ Lana

•**Neska batek edozein lan** eginen luke; etxeko lanak balira, orduka. Monika. Tfnoa: 63 73 72

•**Delineazio industria-**la ikasi duen 22 urteko neska batek, lan eginen luke bulego batetan. Tfnoa: 450054

•**Gitarra klaseak** ematen dira. Tfnoa: 630217

•**Klinika-auxiliar** bat naiz eta lan egin nahi dut. Tfnoa: 450054

•**Administrari bat lan** egiteko prest; 7 urte terdiko bulego-esperientzia. Tfnoa.: 943-51 38 95

•**Andre batek edozein lan** eginen luke Donezteben eta goizez, igandetan ezik. Dei 45 07 70 Tfnoa.

▼ Salerosketak

•**Bigarren eskuko aspiradora** erosi nahi dugu. Tfnoa: 45 15 55

•**Olentzerorako masak** salgai. Kartoizkoak, eskuz eginak. Jabier. Tfnoa: 637170

•**Motoa** salgai, Honda XL Paris Dakar 200.000 pezetatan. 12.000 kilometro ditu. Deitu 637947 tfnora. Akintxo.

•**Buggia** salgai, R-12aren motorrarekin. Oso merke. Deitu 637346 tfnoa. Tomas Otxoteko.

•**Zerra bat**, ez zirkularra erosiko nuke. Juan Bautista Oteiza. 580996 Arraiotz.

•**6.000 teila** saldu nahi ditut, bakoitza 15 pezetatan. Sei urte dituzte eta Oñatikoak dira. 450054.

•**Akordeoi bat salgai** Estrella markakoa. Gorri kolorekoa, tekladuna eta 96 baju dituena. 450499 tfnoa.

•**Trikitixa bat** erosiko nuke, bigarren eskukoa. "Zero Sette" serie 3. Deitu 510092 Tfnoa.

•**Hiru euskal-arrazako** ardi zakur, hilabete-koak, salduko nituzke. Nahi dituenak dei dezala 504492 Tfnoa.

•**Aluminiozko ordeñadora** bat, prezio onean saldu nahi dugu. Gutti erabilitakoa da. 634071.

•**Vespa TX200**, ia-ia berria den motoa, NA-Z, 3.000Km, saltzeko daukat prezio onean. Tfnoa: 450115 Doneztebe. Alejandroz galdetu.

▼ Denetarik

•**Ekipoak alokatzen dira** Udalentzat, bertsolarentzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitza bertzerik ez duzu 63 10 59.

•**Belarritako bat galdu** dut Lesakako Eskolako

frontoian. Norbaitek aurkitu badu, eskertuko nioke 635119 Tfnoa deitza. Ainhoa.

•**Beran, negutegiak** jartzeko terrenoa behar dut. Metroko 700 pzta. artio ordainduko nuke. Tfnoa: 450054.

▼ Harremanak

•**Neska "masoka" guztiei:** Zurekin sufritu nahi dut. Zuk ere nire xarma probatu nahi baduzu deitu azkar, agenda ia betea daukat eta. Xabi (Leitza).

•**Aupa Kizkitza.** Lortuko duzu bainan itxaron pixka bat. Gora gu eta gutarrak. Itziar.

•**Mutil batek**, 26-34 urteko neska bat ezagutu nahi luke, berekin ezkontzeko intentzioarekin edo... familia osatzekoarekin, nahiago baldin baduzu. Tfnoa: 63 11 88.

• Maite zaitut betirako Josexo. A.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA



	Elkar Lan	▼	●	▼	Itorik	▼	Emakume izena
	Joainasen herria		Baleuka		Bokala		
	▶		▼		▼		▼
	Gipuzkoan, zen	▶			Zintzo	▶	
	●				Bete		
	▶				▼		
●	▼	●	Emakume izena	▶			Modua
Alferra			Gip. Trebe				
▶		▼	▼		Suari dario (haur hizk.) Musu	▶	Bigarren bokala
							Itzuli
Lazoa	▶				▼		Iridioa
Zuhaitz mota							▶
				Kanpora joan	▶		▼
				Erregai			
Musika tresna	▶			▼	Edari mota	▶	
Irish Republic Army					Kanpo		●
▶			Janko egyptiarra	▶	▼	Diosal hitza	▶
			Bokala			Ziri	▼
500	▶	Bitarte	▶	▼			Musika nota
Nerom, nihaur		Usaimena					▶
			Bokala	▶	Niri, da	▶	
			... denean, dirudienez		Aldrebes		
●	Sakea egin	▶	▼		▼		Röntgen
	Amerizioa						▶
							Azkena birritan
▶	▼					(Errep.) Xori mota	▶
						Kontso-nantea	▼
Ume negarti	▶					▼	

● Lan munduko hainbat kontzeptu




BAZTAN

ALTZARIAK zurgingdegia

- ✓ Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- ✓ Koltxoiak

121 errepide nazionala, 54. kilometroa
IRURITA - BAZTAN



INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnoa: 45 00 54
Doneztebe

Baztan, Bidasoa, Ultzama eta Matorrekako etxe, baserri, pisu, bajera, eraikitzeko lur eta eremua duten borden berri ematen da

Jose Antonio Elizondo EZKALO

Tfnoa: (948) 45 00 54, Intzakardi 8 - DONEZTEBE